

Kaixo 4 eta 5 urteko mailako gurasook:

Lauro Fundazioa-tik, ikastolako hezkuntza-proiektuari balioa ematen dioten jarduerak sustatzen ditugu, ikasleen ikaskuntza-esperientziak aberasteko eta familiek euskarazko aisialdian parte hartzeko aukera izan dezaten. Haur Hezkuntzan lantzen ari diren eduki pedagogikoei jarraipena emanez, Baltzolako kobazuloetara irteera antolatu dugu: natura, historia eta euskal mitologia uztartzen dituen familia-jarduera hezitzaile eta ludikoa.

Parte hartzea irekita dago Laurokoak ez direnentzat ere, eta lagun, senide edo interesa duen edonork parte har dezake.

Zer egingo dugu?

Otsailaren 8an, igandea, naturan ibilaldi txiki bat, kobetara bidean. Han, hainbat jarduera eta joko: istorioak kontatzea, antzinako bizitza simulazioa, aztarna arkeologikoen bilaketa, soinu-jokoak, argi-itzalak eta muralak bezalako ekintzak prestatuta daude. Haurrek bai klasean ikasitakoaz, bai familian gozatzeko aukera paregabea izango da.

Non eta nola hasten gara?

Baltzolako kobazuloak Dima udalerrian, Arratiako bailaran daude (Bizkaia).

Indusi auzoa (San Frantzisko ermita ondoan), aparkaleku txiki bat dago.

Ibilbide eroso eta zailtasun txikiko paseo batean (20 minutuko inguru) kobetara helduko gara.

Egitaraua:

12:00 Aparkalekuan elkartu (Indusi). Familiei ongietorria, jardunaldiaren azalpen laburra.

12:10 Oinez kobetara abiatu: ibilbide lasaia, naturaren behaketak.

12:30 Kobaren kanpoaldera iritsiko gara. Denbora libre txikia ingurua behatzeko, kobaren ahoa begiratu.

12:40 Kobazuloan jarduera: istorioa edo dinamika kolektiboa.

13:10 Bazkaria (bokadilloa).

13:40 Jarduerak: galeria errazak aztertu, estalaktita/estalagmita behaketa, bizitza kobetan, mitologia loturak.

14:10 Joko arkeologiko-mitologikoa.

14:30 Itzulerako ibilbidea aparkalekura.

15:00 Aparkalekura iritsiko gara, agurrak eta amaiera.

Izena eman: epea, otsailak 3, asteartea. [BETE GALDETEGIA](#)

Izena emateko inprimakian, **boluntario gisa laguntzeko** aukera ere badago. Parte-hartzaileen laguntza ezinbestekoa da jarduerak behar bezala garatzeko (taldeen laguntza, antolaketa, segurtasuna edo bestelako beharrak), eta, horregatik, eskertuko genizueke prestutasuna adieraztea.

Animatu parte hartzera!

Beñat Gonzalez

Lauro Fundazioko sail-arduraduna

gonzalezb@laurofundazioa.eus